

## Kooperarock, kooperatibagintzaren artea uztartzen duen proiektua aurkeztu da gaur Eskoriatzako campusean

2016/09/27

Kooperarock, Donostia 2016k, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki Ikertegiak eta Teatro Paraiso Antzerkiak elkarlanean garatu duten proiektua da. Proiektuaren funtsa da kooperatibagintza eta haren balioak artearen bitartez hedatzea. Norantza bikoitza duen proiektua da, izan ere, edukiak eta formak etengabe elikatzen dira elkar: artea eraikitzeko metodoa kooperatiboa da, eta arte horrek balio kooperatiboak hedatzen ditu.

**Kooperarock: Kooperazioaren Artea, kooperatibagintzaren balioak artearen bitartez gizareratzea** helburu duen proiektua da. Kooperarock, DSS2016ren baitako beste hainbat proiekturen antzera, era berritzailean, elkarrengandik urrundutako disziplinak uztartu ditu lehen aldiz. Proiektuaren helburua da, emozioen bidez, herritarrek kooperatibagintzaren funtsa ulertzeko esperientzia artistikoa bizitzeko aukera izatea.

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lanki Kooperatibagintza Ikertegiak bideratutako hausnarketa-prozesu batetik abiatuta, urtarrilaz geroztik, aztertu dira kooperatibagintzaren oinarriko balioak. Horretarako jarri dira elkarlanean Euskal Herriko unibertsitateak, ekonomia sozial eta solidarioko eragileak, herrigintzako kideak, MONDRAGON taldeko kooperatibak eta komunikabide libreak. Hausnarketa prozesu horren emaitzekin, Gasteizko Teatro Paraiso taldeak sortuko du antzezlan bat, dramatizazioaren bidez, erakutsiko duena Ipar eta Hego Euskal Herriko ikastetxeetan kooperatibismoaren balioak.

Lanki ikertegia izan da orain arte Kooperarock proiektuaren ekintzak bideratu dituen eragilea. Besteak beste, Euskal Herriko hiru unibertsitateetako Kooperatibagintza ikertegi diren GEZKI, MIK eta IECerekin batera egindako hausnarketa jardunaldiak, ekonomia sozial eta solidarioaren alde lanean ari diren Olatukoop eta REASEkin batera ekintzailetasun soziala indartzeko emandako urratsak edota Euskal Herriko Irrati Libreen Arrosa Sarean landutako gaiak, *Argia* agerkariko blogean eta Info7ko webgunetan legadoa utziz.

Lanki Ikertegiak hasi zuen bidea eta Teatro Paraiso Antzerkiak jasoko du lekukoa. Urte amaiera bitartean, proiektuak lau data garrantzitsu proposatzen ditu: urriaren 5ean aurkeztuko da HUHEZIKo Aretxabaletako kanpusean *Belaunaldien arteko elkarrizketak* dokumentala. Abenduaren 15-16ean, Arrasaten estreinatuko da Teatro Paraisoren gidaritzapean eraikitako antzezlan, eta abenduaren 27an Donostian izango da emanaldia.

Gainera, urriaren 5ean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Aretxabaletako campusean aurkeztuko da Kooperarock proiektuaren baitan sortutako "Belaunaldien arteko elkarrizketak" dokumental laburra. Aurkezpen horretan, eta mahai baten bueltan, solasean bilduko dira dokumentalean parte hart duten hiru belaunaldi ezberdinetako hiru gizon eta hiru emakumeak.

### Teatro Paraiso Antzerkiak jasoko du lekukoa

Esan bezala, Teatro Paraiso Antzerkia izango da Lanki hasi duen elkarlanarekin jarraitzeko ardura duena. Horrela, sorkuntzan eta bitartekaritza artistikoan oinarritutako Kooperarock proiektuaren bigarren faseari ekingo dio hurrengo hilabeteetan. Bi dira arabar konpainiak marraztutako ildo nagusiak Kooperarock proiektuentzat: antzezlan original baten sorrera eta bost ikastetxetan egingo duten Bitartekaritza-Artistikoa lana. Xedea da, artea kooperazioaren tresna gisa eskolan txertatzea, baina baita Kooperatibagintzaren balioak



Kooperarock egitasmoan parte hartu duten erakundeetako ordezkariak Eskoriatzako campusean.

sorkuntzaren bitartez gizarteratzea.

## **Eskola eta Bitartekaritza-Artistikoa**

Bost ikastetxe izango dira Bitartekaritza-taldearen lan eremuak: Kirikiño (Bilbo), San Prudentzio (Gasteiz), Amara Berri (Donostia), Saint Martin D'Arberue ikastola (Iparralde) eta Arizmendi ikastola (Debagoiena). Aipamen berezia merezi du azkenak, Euskal Herriko Ikastolarik handienak, izan ere, oinarritzko helburua pertsona kooperatibista eta euskaldunak garatzen laguntzea baitu.

Teatro Paraiso Antzerkiak bitartekaritza lanarentzako metodologia berezi bat diseinatu du, non orain arte konpainiarekin lan egindako autoreen ezagutza eta kontzeptualizazioak jasotzen diren. Metodologia kooperatiboa; espresio dramatikoaren eta egoeraen pedagogiaren metodologia Giselle Barret-ek garatua. Hari hauetatik eta beste batzuetatik tira egingo dute Bitartekaritza-taldeak haur eta irakasleekin batera.

## **Kooperarock: antzezlan**

Proiektu berezia da Kooperarock, izan ere lan eszenikoa haurrek bitartekaritza prozesuan egindako ekarpenetan oinarritzen da. Eta gainera, arestian Lankik jasotako Kooperatibagintzaren esperientzian oinarrituko da. Ondare kooperatibo horretan sortutako material tematiko, eszeniko eta dramatikoak abiatuta hasten da talde artistikoaren lana.

Maxi Rodríguez (*7 vidas, Carne de gallina*) antzerkigile eta gidoigilea buru dutela, Amaia Salazar, Maitane Goñi, Aitor de Kintana eta Ander Basaldua aktoreak ari dira jada antzezlan dinamiko eta poetiko bat gorpuzten. Bertan, jatorri ezberdineko 4 pertsonaia elkartuko dira eta aurre egingo diote elkarri. "Kooperarock" behin-behineko izena duen 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzako ikuskizun hau abenduaren 27an estreinatuko da Donostian,

Argazkian, ezkerretik eskubira: Saioa Torre DSS2016ko Bizitzaren Itsasargiko Zuzendaria; Pilar López, Teatro Paraisoko Zuzendaria; Xabier Paya, DSS2016ko Kultur Zuzendaria; Bixente Atxa, Mondragon Unibertsitateko Errektorea; Igor Ortega, LANKI Kooperatibagintza Ikertegiko Zuzendaria eta Mainer Iriarte, LANKI Kooperatibagintza Ikertegiko eta proiektuaren koordinatzailea.

- [Aurkezpen ekitaldiako argazki galeria.](#)